



Gora musika!

KAIXO POLITA:

Eneko izena nuen "Ene Kantak" proiektu eder eta arrakastatsuan. Nerea Urbizurekin batera, orain 14 urte sortu nuen euskara bultzatzeko ideia zoragarri hura. Irakasleak gara; eta euskaldunak. Horiek dira gure sustraiak, gure arima; gure pasioa. Euskara, kale eta txoko guztietan zabaldu, hizkuntza eskoletatik atera eta alaitasuna eta bizipoza hedatzea izan da beti gure helburu bakarra.

Emanaldi asko egin izan ditugu urte hauetan guztietan, irria eta dantza Euskal Herriko txokoetan banatuz. Navarra Arena, Bec, Anoeta, Campos Eliseos, Victoria Eugenia, Faltzes, Mendizorrotza, Arriaga, Euskalduna, Principal... milaka ikusle ta milioika irrifar dastatu ditugu abestien artean familiekin batera.

EITBn ere, urteak eman genituen eguneroko programa batean maitasuna eta bizipoza zabaltzen. Abesti ederrak egin izan ditugu: "Polonesa", "Ausartak", "Alemana", "Txanogorritxo" edo "Hiru txerrikumeak" bezalako abestiak, nork ez ditu ezagutzen?

Orain, hemendik aurrera, bide ezberdinak jorratuko ditugu eta lehen "Eneko" eta "Nerea" ginenak, Ene Kantak albo batean utzita, abentura berri batean murgildu gara, "Gora musika" proiektuan, hain zuzen ere.

Txiki guztiek ezagutzen dituzten gure betiko abestiak, sortutako abesti berrieekin batera, dantzatuko ditugu hemendik aurrera abentura berri batean.





FLAX adarbakar

Oraingo honetan, amets batean murgilduko dira lehen Nerea eta Eneko zirenak pertsonaia berezi, magiko eta maitakor batekin batera.

Gauak, gure lagunak beldurtzen ditu eta lo egiteari ikara diote. Egoera honi buelta ematen lagunduko die Flax adarbakarrak. Urtero bezala, egoera dibertigarriak eta dantzagarriak biziko dituzte gure bi bihurriek oraingoan ere.

Gainera, gure bi lagunek, bere burua maitatzen eta zintzoak izaten ikasiko dute. Norberak bere burua maite behar du eta barruko "gu" horrek, lagundu behar gaitu, ez erasotu. Zertan eta nola eragingo diote Flax adarbakarrari, lehen Nerea eta Eneko zirenen akatsek?

Denok ikasiko dugu abentura eder honekin, geure burua maitatzen. Akatsak denok egiten ditugu, baina haietatik ikasi eta aurrera jo behar dugu. Errua ez da existitzen, ardura baizik. Bakoitzak berea badu eta denok ikasiko dugu altxatzen eta egoera makurrei, irria jartzen eta ikasten; beti adimena zabaltzen.

Ez galdu abentura berri ikaragarri hau. Gozatuko duzu. Dantzatuko duzu. Alai eta zoriontsuago irtengo zara ikuskizuna eta gero. Eta asko ikasiko duzu.

Emozionatu zaitez gurekin gozatu.



GURE PASAHITZAK:

PASIOA, ILUSIOA, LANA ETA EUSKARA

KONTRATAZIOA: GARIKOITZ



608 206 949



goramusika1@gmail.com